

Tokiko ekonomia-gobernantza berrikuntza sozialaren begiradatik

Miren Estensoro; Miren Larrea; Mikel Zurbano

Orkestra eta EHUko ikertzailea; Orkestrako ikertzailea; EHUko irakaslea

Lan honen helburu nagusia berrikuntza sozialaren teoriak tokiko ekonomia-garapenari eskaintzen dion balio erantsia aztertzea da. Batik bat tokiko garapenean parte hartzen duten eragileen arteko trukeek eta ekinbide kolektiboak tokiko garapen horretan duten ekarpena izango da aztergai. Berrikuntza sozialaren kontzeptu zabala tokiko garapenaren ikuspegitik zedarrizten eta mugatzen saiatuko gara lehenik eta behin. Berrikuntza sozialaren komunitate-oinarriak kapital sozialaren eta instituzionalaren eta harreman-kapitalaren garrantzia azpimarratzen du eta giza garapenaren kontzeptura hurbiltzen du berrikuntza soziala. Berrikuntza sozialak tokiko gobernantza-ereduaren eraldaketa eta berrikuntza bere estrategiaren erdigunean jartzen du eta hein berean erakunde publikoen funtzio eraberritua aldarrikatzen du. Sozialki berritzaileak diren lurraldeen errealitatea aurkeztuko dugu ondoren, lurralde horien eraikuntzarako oinarriak aztertuta.

GAKO-HITZAK: Tokiko ekonomia-gobernantza · Berrikuntza soziala · Tokiko sareak

Local economic governance from the perspective of social innovation

The general aim of this paper is to analyze the contribution that social innovation makes to the local economic development. We will specifically study how interaction among actors and collective action affect in local development processes. First of all, we define and delimit the broad concept of social innovation from the local development perspective. The community-based social innovation stresses the importance of social and institutional capital and relational capital and, therefore, approaches social innovation to the concept of human development. Social innovation puts at the center of his strategy the transformation and innovation of local governance pattern. This means also that social innovation advocates for the renewal of functions of public institutions. Then we analyze the reality and the foundation of socially innovative territories.

KEY WORDS: Local economic governance · Social innovation · Local networks.

Jasotze-data: 2011-02-21. *Onartze-data:* 2011-05-11.

1. Berrikuntza sozialaren inguruko ekarpenak

Osloko Eskuliburuak berrikuntzaren eredu lineala ofizialki zalantzan ipini zuen (OCDE, 1997). Nolanahi ere, berrikuntzaren gizarteratze-bidean lehen aipamen ofiziala izan arren, berrikuntza sozialaren azterketan ez zuen oso aurrera jo. Berrikuntza sozialaren ikuspuntuak, aldiz, balio eta eremu sozialak lehenesten ditu. Ekoizkortasun, ekoizpenaren kostu, merkatu-tasa eta enpresen lehiakortasunaren grabitate-zentroa galtzea ekartzen du berrikuntza soziala aintzat hartzeak. Gizabakoa bera da berrikuntza honen xedean ageri den giltzarria eta pertsonen aberastasun soziala elikatzean legoke helburua. Aberastasun horrek giza harremanetan du bere funts garrantzitsuenetakoa. Berrikuntzaren ikuskera honek ez du lehiakortasun eta merkatuaren logika ezeztatu nahi, baizik eta helburu hori oinarri ezberdin batzuen gainean eraiki. Echeverriak dio berrikuntza sozial hauen arrakasta gizartean daukan onarpenaren arabera neurtuko dela (Echeverría, 2008).

Jakina denez, Marx, Schumpeter edo Weberren garaietatik eta ondoren, hainbatetan ageri dira berrikuntza sozialari buruzko aipamenak berrikuntzaren literaturan. Esaterako, Taylorren iritziz (1970), berrikuntza soziala gizartean ageri den arazo bati aurre egiteko helburua duen bide berria litzateke eta arreta exekuzio-prozesuan bertan ipintzen du. Pottersek (1998) berrikuntza sozialaren arteko bi elementu komunak azpimarratzen ditu. Lehenik, biztanleriaren parte-hartze eta ekimenetik jaiotako prozesuak direla azpimarratzen du. Bestetik, tokiko gizarte-integrazioaren mesedea bilatzen du eta, beraz, helburu sozialari erreparatzen dio.

Young Foundation-en aburuz (Mulgan, 2007), berrikuntza sozialak behar eta helburu sozialak betetzeko edo asetzeko ideia berriak azaltzen dizkigu. Gizartearen kontzeptuak duen esanahi zabala dela-eta, berrikuntza sozialaren muga zabaltasuna agertzen digu horrek.

Bistan da, berrikuntza sozialaren kontzeptuak eta bere ingurumariak ibilbide laburra dutela. Egunerokoan martxan jartzen diren zenbait ekimen berrikuntza sozialaren isla diren arren, errealitate honekin lotutako ikerketak eta formalizazioa beren lehen urratsak ematen ari dira. Horrela, pilaturiko ikerketa-lanetan, batez ere ikerketa-kasuen bilduma bat dela esan genezake oro har¹. Teoria, funtsezko datuak eta informazioa edo berrikuntza nola antolatu aztertzen duten eduki analitikoak oso urriak dira. Gizartearen beharrek eragindako berrikuntzez ari garen neurrian, ulertzekoa da jasotako literatura kasu praktikoetan oinarritzea eta hortik dator definizioaren hegakortasuna.

Bestetik, berrikuntza sozialaren inguruan jorraturiko ikerketek honako gai haueetan jarri izan dute arreta nagusia: sektore publikoaren berrikuntzan (berritzaileak diren estatu eta gobernuen mapak egiteko ahaleginak, esaterako), erakunde sozialetan (Gobernuz Kanpoko Erakundeak, boluntario- edo komunitate-erakundeak), ekintzaile sozialetan edo ekimen zibiletan edota inbertsio sozialetan. Gainera, berrikuntzaren etapa ezberdinetan arrakasta-faktore direnen edota eragozleak direnen identifikazioaren gabezia argia da. Adibidez, eragozpen handiak

1. Ikus adibidez egile eta fundazio hauek plazaratu dituzten esperientziak: Moulaert eta Nussbaumer (2005), Young Foundation (www.youngfoundation.com) edo Crises (www.crisis.uqam.ca).

daude berrikuntzarako politika suspertzaileak, finantzaketa-bideak edota eragile bakoitzak duen rola zehazteko garaian.

Dena den, lan honek berrikuntza sozialaren bestelako ikuspegi bat aztertzea du helburu. Berrikuntza sozialak lurralde eta tokiko garapenerako bidean duen pape-rari egiten diogu erreferentzia. Zehazki, berrikuntza sozialak aztergai dituen eragi-leen arteko gizarte-harreman eta gobernantza-eredu berritzaileak oinarrizko ele-mentu bilakatzen dira hemen².

2. Berrikuntza soziala eta tokiko giza garapena

Ikuskera desberdinak daude berrikuntza sozialaren teorian zein praxian. Lurral-de eta tokiko ikuspegia barneratzen duten berrikuntzaren ulermenek, tokiko gara-penarekin, lurraldearen eta hau osatzen duten gizabanakoen bizi-kalitatearen hobekuntza bilatzen dute. Kasu honetan, berrikuntza horiek bideratzeko baldintza instituzionalak eta lankidetzak nahiz harreman-kapitalaren garapena funtsezkoak dira. Gure ikuspegitik berrikuntzaren eduki soziala berrikuntza-prozesuan bertan aurkitzen da

Berrikuntza soziala lurralde-garapenari lotzerakoan, Moolaert eta Nussbau-merrek (2008) giza garapenaren kontzeptua ekartzen dute gogora. Adiera horren helburua gizabanakoaren ahalmenak garatzea da, lankidetzak eta sare-dinamiken bitartez suertatzen dena. Lankidetzak eta parte-hartze dinamikak parte-hartzaileen beharrak azalarazten laguntzen dute. Azkenean, behar horiek asetzeko asmoz garatzen diren baliabideak lortzeko gaitze- edo trebakuntza-prozesuak sustatzea ahalbidetuko dute berrikuntza sozialeko prozedurek. Ildo horretan prozedura hauek eragileen arteko lankidetzak sustatzen dute. Beraz, berrikuntza sozialeko prozesuek kidetasun- eta kolaborazio-dimentsioa bereganatzen dute.

Nolanahi ere, berrikuntza soziala eta lehiakortasun-ahalmena handitzeko mo-duak bateragarriak suerta litezke. Horretarako baldintza batzuk bete behar dira. Prozesu horietan parte hartzen duten enpresek, esaterako, berrikuntza sozialaren irizpide eta helburuak integratu beharko dituzte haien estrategietan. Merkatuak eta prozedura publikoak esleitzen ez dituzten ondasun eta zerbitzuak asetzeko, elkartasuna edota *ikaskidetzak* (co-learning) bilatzen duten enpresen arteko lanki-detzak bide berriak edota jasangarritasun-helburuak enpresaren estrategian barne-ratzea horren adibide dira. Besteak beste, ekonomia sozialeko enpresak dira kola-borazio bide horiek edota mozkinaz besteko helburuak barneratzen dituztenak. Horrela definitutako berrikuntza sozialak komunitatean bertan oinarrituriko berri-kuntza-prozesuei egiten die erreferentzia.

Finean, proposatzen den garapen-eredu honek azaltzen duen eduki soziala da azpimarragarria. Alde batetik, gizarte hori osatzen duten pertsonen beharrak ase-tzean ipintzen da arreta nagusia. Bestetik, berrikuntzaren kontzeptuari dagokio-nez, gizartean parte hartzen duten eragile horien arteko harremanetan gertatzen diren berrikuntza eta aldaketak dira giltzarriak. Beraz, berrikuntzaren prozesua

2. Bide horretan, nahitaezkoa da, Canadako CRISES, berrikuntza sozialen ikerketarako zentroko ikerketek azaltzen duten legez, berrikuntza hauen kategoriak ezberdintzea (Crisis, 2003).

bera da garrantzi berezia jasotzen duena. Tokiko eragileen arteko harremanak nahitaezkotzat jotzen dira gizabanakoen beharrak asetzeko eta tokiko garapenak dinamika eraldatzailea eta inklusiboa izan dezan.

Halaber, ekoizpen eta banaketaren logika berri baten alde lan egitea nahitaezkoa da, merkatuaren hutsegiteak kitatze aldera. Dena den, merkatuak bestelako funtzio batzuk betetzen ditu, lehia-gaitasuna indartzeaz gain, ekonomia sozialari eta zerbitzuen hornikuntza kolektiboari lotzea dakarrena (Moulaert eta Nussbaumer, 2005b). Merkatu-ekonomiaren eta gizartearen arteko erlazio berri bat sortzen da eta azkenean jarduera ekonomikoak bideratzen dituzten pertsonengan oinarritzen da eredia.

Berrikuntzaren inguruko korrante hori gizabanakoengan zentratu eta oinarritzen da beraz. Gizakia abiapuntutzat hartuz, eragileek beren ahalmenak garatzen dituzte gainerakoekin dituzten harremanen bitartez eta arazoei aurre egiteko bidean. Interesgarria da ildo horretan CRISEsek (2003) egiten duen hausnarketa. Eskola horren esanetan, berrikuntza sozialarekin gizabanakoei beren bizitzaren garapenerako erakunde sozial solidario bat eskaintzearen moduko aukera bat ezartzen zaie aurrez aurre. Helburua lortzeko, banakako ordezkariak eraldatzea, ezagutza garatzea nahiz motibazioa, norberaren balioa eta autonomia lantzea tresna interesgarriak bilakatzen dira.

Azken finean, oinarritzko beharren asetzea eta giza harremanetan berrikuntzaren barneratzea dira berrikuntza sozial bezala ezagutzen den prozesuaren oinarri. Zutabe horien eraikuntzan, komunitatearen pisua eta integrazio komunikatiboa beste elementu ororen gainetik daude. Horrek nolabait, agente horien botere-hartze edo *empowerment* prozesu bat eragiten du. Beraz, merkatu-arrakasta eta aurrerakuntza soziala batera joan daitezkeen bi errealitate dira (Moulaert, Martinelli, Swyngedouw eta Gonzalez, 2005).

Aipatu dugun gisa, hainbat dira berrikuntza sozialaren aztarnak ikusgai diren arloak. Enpresa-mundura hurbilduta, bi lerrotan antzematen dute haren aplikazioa Moulaert eta Nussbaumerrek (2008). Alde batetik, zientzia sozialari loturiko kontzeptu eta metodologiaren barneraketa ageri da, eta, bestetik, enpresen helburu sozial eta jatorria legoke, ekonomia sozialaren kasuari erreferentzia egiten diona. Modu berean, giza baliabideen arloak berrikuntza sozialarekin loturiko hainbat eduki izan ditzake³.

2.1. Berrikuntza sozialaren oinarria

Lurralde-garapenak logika sozialarekin bat egiteko pausoa bere egiten dute Moulaertek eta Nussbaumerrek (2008), *lurralde-garapen integratuaren* eredia aintzat hartuta. Bertan, berriz ere, testuinguru historiko, instituzional eta kulturaren garrantzia azpimarratzen da, nahitaez toki mailako errealitateetatik abiatzea dakarrena. Hortik, gobernantza eta, zehatzago, tokiko gobernantzaren kontzep-

3. Hemen, ezinbestekoa zaigu gizarte-kapitalaren kontzeptua kontsideratzea (Putnam, 2000; Coleman, 1988; Woolcock eta Narayan, 2000). Kapital horren sorrera gizabanakoek talde edo sare batean parte hartzetik lortzen duten abantaila litzateke, giza harreman hori garatzeko ezinbestekoa dena. Horrela, gizarte-kapitalean aberatsa den enpresa batek berrikuntza soziala bultzatzeko ahalmen handiagoa izango du, gizarte kohesionatuagoa bultzatzeko bidean.

turako jauzia egin behar da. Tokiko gobernantzaren ideian, tokiko mailan ageri den erakunde-sistemaren birbalarizazioa azpimarratzen da.

Hiru zutabe dira berrikuntza sozialaren lurraldetasuna eta integrazioa bideratzeko nahitaezkoak. Alde batetik, tokiko komunitatearen trebakuntzaz ari gara, lurralde maila behekoena aintzat hartuz behartzen gaituena. Bestetik, komunitateari begira, bera osatzen duten gizabanakoetarik bakoitza gaitzez ari gara, behetik bultzaturiko eta guztiak barne hartuko dituen garapen-eredu bat proposatuz. Azkenik, trebatze horrek bideratuko duen beharren asetzeak adar sozialetik abiatu eta garapen ekonomikorako oinarriak txertatuko ditu. Gobernantzaren esanahian ulertzen dugun maila ezberdinen arteko eta bakoitzean ageri diren gizabanakoen arteko harreman-kapitala sustatuz bideratuko da berrikuntza sozialaren trantzisioa, alegia.

O'Hara (1997) autore instituzionalistak aberastasun kolektibo edota kapitalaren erreproduzioari buruz garaturiko ikuspuntua funtsezkoa da berrikuntza sozialaren habe nagusiak identifikatzeko. Berak, lau kapital mota ezberdintzen ditu: giza kapitala, kapital ekologikoa, gizarte-kapitala edo kapital instituzionala eta enpresa-kapitala. Ezberdintze honekin berrikuntza kapital pribatuaren logika hutsetik haratago dagoela adierazten da, batik bat. Berrikuntzaren garapenerako beharrezko den kapitalak ezaugarri multidimentsionalak ditu; elkarren arteko interakzio indartsuek bere mugen definizioa zaila dela adierazten digute, are gehiago giza kapitalaren kasuan.

Berrikuntza sozialaren lurraldetasunaren inguruan, Moulaert eta Nussbaumerrek kapital instituzionalak duen garrantzia azpimarratzen dute bestelako kapitalen gainetik (Moulaert eta Nussbaumer, 2005). Berrikuntza soziala eta berrikuntza instituzionala prozesuen eta berrikuntza-prozesuen erdian ageri dira. Gobernantzako giza harremanetan berrikuntza sustatzea izango da bidea, gizartean agertzen diren beharren asetzea bideratuta. Horrela, gizarte- eta erakunde-kapitalaren baitako berrikuntzak honako berrikuntzak eragingo ditu aldi berean: beharren azaleratzeko prozesuak erraztu eta, ondoren, lankidetzak, komunikazio eta gobernantza egoki baterako prozesuak bultzatzea (Estensoro eta Zurbano, 2010).

2.2. Prozesua bera giltzarri

Berrikuntza sozialaren kontzeptuak, horrela, arlo ekonomiko nahiz sozialeko arazoei erantzutearekin batera, erantzun hori posible egiteko prozesuan bertan agertzen du aldaketa. Hain zuzen eragile eta tokiko aktore ugarien arteko lankidetzatik ezberdinduko da prozesu hau, parte-hartzaileak berrikuntza horren lehen faseetik inplikaturik. Izan ere, lankidetzak horretan parte hartzen duten eragileak lehen plano horretan egotea eta gainerako eragileekin ikasketa komunerako prozesu hori bizitzea, berrikuntza soziala izateko nahitaezko baldintza bilakatzen da. Lankidetzak-prozesu horren ikuspuntutik, berrikuntza sozialerako prozesua, ikasketa-prozesu modura ulertzen da batez ere. Horrek, prozesu berritzaile horiek eragin eta errazteko testuinguru eta erakunde-sistema eskatuko du aldi berean.

Lankidetzak da, nahiz eta gizabanakoen eskutik abiatu, ikasketa-prozesuak partekatatu eta berrikuntza emateko ezagutza sortzea eragingo duena. Modu berean, berrikuntzaren «sozializazioa» ere eragile ugarien egoera edo ikuspuntuen isla

izanik bakarrik lortuko da. Lankidetzaren horretatik bideratzen diren ekintzak, prozesu horren fruitu izango dira. Sabelekin (1996) bat eginez, ez da nahikoa konponbide *originala* bilatzea, baizik eta konponbide hori aurkitzeko bidean jarraituriko prozedurak plano sozialean dituen eraginak eta lankidetzaren eragitea kontuan hartu behar dira hura berrikuntza sozialtzat jotzeko.

Prozesu horretan parte hartzen duten eragileen aniztasuna eta parte-hartzea nahitaetzeko baldintza izango dira benetako berrikuntza soziala gerta dadin (Crisis, 2003). Konponbideak martxan jartzea erraztuko du bide horrek, inplikazioa handitzea baitakar. Gainera, prozesu horretan sortzen den jakintzak, eta dagokion ikasketa-prozesuak, konponbide horietara iristeko eta akzio-planora salto egiteko erraztasunak sortuko ditu.

Aldaketak dakarren egoera berriari egiten diogu erreferentzia, lehen ez genituen baldintza batzuk sortu baitira gizabanakoen beharrei erantzuteko helburupean. Gizabanakoaren ahalmenak garatzean datza, beraz, berrikuntza, zeren jarraituriko ikasketa-prozesuak arazo eta beharren aurrean erantzuteko «moduak» irekitzea lortzen baita. Lurralde bera da garapenerako subjektu, bera osatzen duten komunitate eta gizabanakoen *korpusa* osatuta. Aipaturiko eragileen arteko lankidetzaren horrek geroago agertuko den gobernantza-ereduaren birmoldaketa dakar.

Horrela sortzen den aberastasun sozialak balioen artean giza harremanen pisua azpimarratzen du. Eta berrikuntzaren emaitzez haratago, berrikuntza hori zabaltzean eta eragile eta gizabanakoen arteko loturan datza dinamikaren giltza. Berrikuntza sozialak eragindako aldaketa-prozesuetan, gobernu-sistemak eta instituzioek dituzten funtzioak ere garapen-ereduaren dinamika honen erdigunean daude. Beraz, arlo publikoak jokatzeko duen paper eraberritua aztertzea eta ulertzea funtsezkoa da.

3. Sistema instituzionala eta sektore publikoa berrikuntzaren erdian

Moulaert eta Nussbaumerren esanetan (2005), arlo publikoaren eta pribatuaren arteko ezberdintze argia egin beharra dago. Lehenik eta behin, publikoa dena pribatutik ezberdintzeko orduan, batean eta bestean bultzatzen diren inbertsioen helburua zein den behatzeko. Haien arabera, ondasun pribatuak gizabanakoen behar pertsonalak asetzeko helburua duten horiek izango dira, eta kolektiboek, aldiz, dimentsio sozialean asetzen dituzte beharrak, behar horien erantzun kolektiboa izango dira, alegia.

Azkenaldian eta batez ere uhin neoliberalaren testuinguruan, inbertsio publikoak inbertsio pribatua bereganatzeko helburuarekin bideratu dira (azpiegitura publikoak, hiri-marketina eta proiektu kulturalak, adibidez). Bide horretan, publiko eta pribatuaren benetako esanahia galtzeko arriskua nabaria da. Modu berean, kapital publikoaren eta kolektiboaren artean ezberdintzea beharrezkoa da. Lehenengoari dagokionez, esan beharra daukagu kapital publikoa, esku publikoetatik eratortzen den kapitala dela eta, aldi berean, behar pribatu nahiz kolektiboak asetzeko helburua du. Estatuaren papera beste eragileen ginetik geratzen den arren, merkatu kapitalistak kapital pribatuaren metaketari lehentasuna eman dio. Kapital kolektiboaren kasuan, komunitatearen logikara gerturatzen da gehiago,

kapital pribatuarenaren gainera. Merkatu-lehiaz gain, kutsu sozioekonomikoa duten bestelako arauak erregulazio-ahalmena garatzen dute eta bertan parte hartzen duten kapital pribatuak ohiko logika horretatik urruntzen dira. Horrela, kapital kolektiboaren bidez bideraturiko inbertsioek komunitateko gizabanako orori mesede egiteko helburua izango dute. Moulart eta Nussbaumerren iritziz (2005), kapital kolektibo honetan inbertitzea da tokiko garapena bultzatzeko giltzarria.

Kapital kolektiboaren logikatik abiatuz berrikuntza instituzionalaren garrantzia ere indartu egiten da. Alde batetik, berrikuntza hori tokiko agente eta estatu mailakoaren arteko lankidetzaren kalitatean dago. Bestetik, tokiko agenteek jarduera berriak gauzatzeko duten ahalmena, errealitate sozioekonomiko eta soziopolitikoaren arabera izango da. Komunitatearen ahalmen instituzionalak erabakihartzearen mekanismo eta estrategiak kontuan hartzen ditu, betiere biztanleriaren demokrazia zuzenaren eta kapital publiko eta kolektiboaren bidez ematen den ondasun eta zerbitzuen eskaintzaren esparruan. Modu horretan, kontrol demokratiko zuzena beharrezko baldintza bilakutzen da eta administrazio publikoak erabakihartzea zuzenean kontrolatu beharko luke, botere-harremanen gaineko kontrola bere eginez.

Ildo berean, garapen instituzionalaren eta saretze-prozesuen arteko harreman estua nabarmendu behar da. Berrikuntza sozialaren logikaren barnean, sare-egituraren instituzioek duten egitekoak demokrazian oinarritua egon behar du, gainerako sareekin lankidetzara eta elkarrekintzara bideratuta. Xede horretarako eta botere-gainezkatzeak ekiditeko lan egin beharko dute erakundeek, komunikazio horizontala eta jokaera demokratikoa pizteko ahalegina barneratuta. Beraz, argi dago kapital instituzionalak egiteko argia duela sareen funtzionamenduan.

Azkenaldian, Estatuak garapen ekonomikoaren bidean lehen mailako eragile izatetik, 80ko hamarkadan gailendu zen korrante liberalentzat garapenaren beraren aurkaria da. Nolanahi ere, Estatuak garapen-prozesuan ahalmen handiko bultzatzailea izan daiteke. Esaterako, eskualde, enpresa edo industri sektorearen lehia-kortasun-egoera bera sustatzeko nahiz erregulatzaile eta enpresari moduan lan handia egin dezake bere «animatzaile» paperean (Cooke eta Morgan, 1998). Jakina da tokiko eta uneko ezaugarriek ekonomiaren martxa erabat baldintzatzen dutena eta ezinezkoa dena guztientzat baliagarria den eredu orokor bat diseinatzea.

Dena den, tokian tokiko egoeraren ezberdintasunak kontuan hartu beharreko elementuak dira. Alde batetik, postfordismo eta globalizazioaren testuinguruan, Estatuak daukan papera murriztu egin da, eta, bestetik, lurralde batetik bestera botere hori ere ezberdina da. Gainera, estatu edo nazio mailatik aldentuz, eskualde eta tokiko maila gero eta garrantzi handiagoa irabazten ari da, globalizazioaren testuinguruan.

Berrikuntza sozialaren ikuspuntuak tokiko mailaren garrantzia azpimarratzen du (Moulart eta Nussbaumer, 2005b). Komunitatearen tokiko ezaugarriek pisu nabarmena dute eraldaketa sozialean eta ekonomia-garapenean, eta harreman-kapitala eragiten eta garatzen den testuingurua tokiko hori da hain zuzen. Are gehiago, tokiko merkatutik at, munduko sisteman dagoen errealitatea kontuan hartu beharrekoa da une orotan; izan ere, alferrikakoa da bestelako garapen-

eredua hori kontuan izan gabe aurrera eramatea. Hori horrela izanik, tokiz gaindiko mailan kokatzen diren sareekiko harremanak jakintza- eta garapen-iturri suerta daitezke.

Cook eta Morganen (1998) ikuspegi *asoziazionalak* Estatu eta merkatuaren erdian geratzen diren elkarte eta instituzioen garrantzia hartzen du kontuan. Estatu ikasketa interaktiboa bultzatzeko ingurunea ezartzeaz arduratzen da, kohesio soziala eta berrikuntza-sistema nazionalen txertaketa bultzatuz, hain zuzen. Bide horretan, berrikuntza laguntzen duen botere-deszentralizazioa beharrezko bilakatzen da, zenbait jardueraren eskualdatzearekin batera.

Aspaldidanik onarturiko ideia da, tokiko garapenean instituzioek oro har duten garrantzia. Ildo horretan, aipatzekoa da ekonomia eta gizartearen beraren eten-gabeko aldaketek erakundeen aldaketa eskatzen dutela. Hori dela-eta, prozesu geldo, konplexu baina etengabeko baten aurrean gaude. Baina, tokiko sistema instituzionalaren egituraketa egoki batek (aktore ororen arteko harremana oinarritzat hartzen duena) aldaketa-prozesurako abantaila ekartzen du. Azkenean, prozesu sozial batez hitz egiten ari garen neurrian, gizarteko zati diren aktoreen beharra eta nahia izango da aldaketarako arrazoia.

Lurraldeko aktoreen arteko lankidetzaz berritzaile eta ekintzaileagoa den heinean, garapenerako oinarri bilakatzea dakar (Vázquez-Barquero, 2006). Prozesu honetan, eragileen arteko konfiantzak garrantzia handia irabazten du eta konfiantza errota eta zabaltzeko lurraldean txertaturiko instituzioen abantaila inon baino indartsuago ageri da.

Tokiko politiken eraginkortasunerako tokiko ekimen hauek eskualdeko eta administrazioaren eskualdeko eta sektoreko politikekin koordinatuak egotea ezinbestekoa da. Nolanahi ere, maila desberdinen arteko lankidetzaz hau eragile ororen artean adosturiko garapen-eredua eraikitzeko oinarria dugu. Eta mailen arteko lankidetzaz hau gizarte zibil eta aktore politiko eta sozialen artean adosturiko helburuen gainean eraiki behar da, hain zuzen (*negotiated planning*) (Vázquez-Barquero, 2006). Haatik, tokiko eta eskualdeko administrazioen eskumenak eta instituzio-esparrua ondo zedarrituta egotea ezinbestekoa da, horrela izan ezean tokiko ekimena erabat mugatuta gera baitaiteke.

4. Tokiko gobernantza eta berrikuntza soziala

Gobernuaren esanahitik urrunduz gizarte zibil eta ekonomia sozialean oinarritzen da gobernantza. Berez, kolektiboki jardun eta hobekuntzarako aldaketak emateko ahalmena garatuko duten baldintza instituzionalak garatzen ditu gobernantzak.

Gobernantzak, sektore pribatu eta publikoaren barneko nahiz arteko mugak desagertzea dakarren gobernante moduei egiten die erreferentzia (Stoker, G. 1998). Stokerrek gobernantzaren definiziorako zehazten dituen proposamenen artean, lehenik, gobernantza gobernutik eta haratago sorturiko erakunde eta aktore taldearen gainean eraikitzen dela dio. Bestetik, arlo sozial eta ekonomikoa aldi berean lantzeko muga eta erantzukizunak gainditzeko aukera errazten du.

Eragileen sareen autogobernu-ahalmenari buruz dihardu gobernantzak; gobernuaren botere eta konpetentziak kendu gabe, ekintzak aurrera atera eta gobernuari teknika eta tresna berriak eskaintzen dizkion ereduak planteatzen dira, alegia.

Finean, aktore publiko eta pribatuen estrategien integrazioa bultzatzeko elkarlan eta koordinazioan oinarritzen den prozesu batez ari gara. Prozesu instituzionala barne hartu arren, berezko dinamikaz ere ari gara hitz egiten. Berezko ezaugarri hori dela-eta, tokian tokiko gobernantza-eredu ezberdinak ageri dira eta hainbat lanek eredu hauen baitako tipologiai eraikitzeari ekin diote.

Nolanahi ere, eragile eta erakundearen artean akordioak definitzeko ahalmena eta akordio horiek enpresen jardura eta tokiko garapen-prozesuan eragiteko indarra inguruko instituzio-sistemaren ezaugarrietan oinarritzen da (Vázquez-Barquero, 2006). Gaur egungo gizarte eta sistema ekonomikoen etengabeko aldaketak gobernantzaren esanahiaren barnean ere kontzeptu berriak gehitu eta konfiantza hartzea eskatzen du. Azken finean, garapen-prozesu egoki baterako, erakundeak ere unean uneko behar eta errealitateetara moldatzeko gai izan beharko dira eta eragileen arteko lankidetzak eta koordinazioa beharrezkoak dira horretarako.

Gobernantzaren berrikuntzaz ari gara neurri handi batean. Berrikuntza sozialaren ikuspuntua gobernantzarekin txertatzeko sistema instituzionalean arreta ipintzea ezinbestekoa da. Ezinbestez gizartean ageri diren beharrei erantzuteko eredu interaktibo eta eraginkor bat proposatzeko gai izan behar dugu. Hemendik abiatuta, berrikuntza sozialaren ikuspuntuak gobernantzaren beraren eskala edo maila anitzeko izaera eskatzen du. Batez ere, eskualde eta tokiko mailan ageri diren sistema instituzional eta interbentzio-ereduetan jartzen dugu arreta beraz. Sistema instituzionalak funtsezkoak dira. Eragile publikoen eta pribatuen artean sortzen diren harreman horietatik eratorriko da komunitate beraren berrikuntza eta garapenerako ahalmena eta, beraz, harreman-kapitala eragitea da giltzarria. Sareen funtzionamenduko ereduak kapital mota horri eragiteko eszenatoki edo testuinguru aproposak bilakatzen dira.

Lurraldetasunaren dimentsioa gobernantza-prozesuekin zuzenean loturiko gaia da. Horrela, ondoren aipatzen den moduan, toki mailako gobernantza-prozesuak giltzarri bilakatzen dira komunitatearen berrikuntza sozialerako oinarriak txertatzeko garaian. Dena den, tokiko prozesu hauek gainerako lurralde mailetan garaturiko prozesuekin lotu beharra ezinbestekoa izango da (Estensoro eta Zurbano, 2010).

Eskualde edo toki mailan garaturiko eragile-sareek lurraldeari loturiko jakintza daramate atxikita eta hori elkarri trukatzea izango da tresna berritzaile garrantzitsua. Konfiantzak eta bertan garaturiko gizarte-kapitalak lotura zuzena dute toki mailako eszenatokien garapenerekin (Amin eta Thrift, 1995). Testuinguru hauetan gertutasun geografikotik eratortzen den eragileen arteko harremanaren potentziala garatzeko aukera indartu egiten da, tokiko harremanetan konfiantza ehuntzen den heinean. Goi-mailako gobernuaren deszentralizazio-prozesuak lagungarri bilakatzen dira bide horretan (Keating, 2005).

Tokiko gobernantzak azpimarratzen du parte-hartze dinamikak integratzen dituzten erakundeak sortzearen garrantzia. Gobernantza-sistemaren berrikuntza tokiko garapenaren demokratizazioaren eskutik dator, tokiko politiken aktibatze,

erakundeen sinplifikatze eta mugimendu sozialen garrantzia hartzearekin alegia (Moulaert eta Nussbaumer, 2008). Oinarrizko beharren asetzen ezartzen da azken muga, eta bide horretan, hainbat prozesuren konbinazioa aurreikusten da. Horrela, dinamika instituzionalen bidezko mugimendu sozialen sustapenak, lehen ere aipatu dugun gizartearen ahalmenen garapena bideratzea erraztuko du, benetan integratzailea den garapen-prozesua ahalbidetuz. Dinamika honek tokiko demokraziaren aberastasuna eta berau osatzen duten harremanen sarea indartzea ekarriko luke (Moulaert eta Nussbaumer, 2008).

Gobernantzaren ikuspegi berritzaile honek, horrela, bertan eragiten duten erakundeetan ez ezik, tokiko erakundeen dentsitate eta garapenean ere eragiten du. Eskualdeko eta toki mailako garapenerako lan egiten duten erdibideko erakunde-azpiegituren sorreran eta bilakaeran eragiten du, alegia. Modu berean, azpiegitura edo sistema horrek eragileen arteko interes-gatazken konponbidea aurkitzeko eraginkortasuna handitzen du. Kasu honetan ere, ezinbestekoa da eragile publikoen eta pribatuen arteko lankidetzeta eta harremana antzeman eta garatzeko esparru aproposa indartzea. Hain zuzen, Morgane (1999) lantzen duen ezagutzaren ekonomian politika publikoen erronka nagusietako bat eragile publiko eta pribatuak ikasketa-prozesu interaktibo eta kolektiboan integratu ahal izateko baldintzak garatzean datza.

5. Sozialki berritzaileak diren lurraldeak

Berrikuntza sozialaren oinarritik abiatu eta gobernantzaren kontzeptu integratzaile baterantz egiten badugu salto, sozialki berritzaileak diren lurraldeen kontzeptura iritsiko gara (Estensoro eta Zurbano, 2010). Aipatu dugun moduan, gobernantza komunitatean eragile kolektibo moduan jarduteko harreman instituzionalen abilezia da. Gobernantzaren beraren tipologia, kalitate eta koherentziatik haratago, eragile kolektibo modura jarduteak kanpo-errealitatearekiko dituen eraginak aztertzea garrantzitsua da. Bertan, berrikuntza sozialaren kontzeptuak eta ikuspuntuak paradigma horretara hurbiltzen laguntzen digu.

Berrikuntza sozialak gobernantza eta lankidetzarako ereduak berrikuntza lehenesten du. Lehenespene horretan, tokiko garapenean parte-hartze eta lankidetzeta-prozesuak barneratzearen beharra aldarrikatzen duen ikuspuntu eboluzionistarekin bat dator. Moulaert eta Nussbaumerrek (2005) landuriko komunitate-garapenearen ontologia soziala hartzen dugu erreferentziatzat. Egile horien arabera, komunitatea egungo merkatuek antolaketa sozialean azaltzen duten ikuspuntu indibidualistarekiko alternatiba moduan ageri da. Aipaturiko komunitate-garapenearen paradigman, berrikuntza soziala berrikuntza teknologikoaren alternatibatzat ageri da.

Gobernantza-eredua, beraz, berrikuntza sozialaren prozesuetako elementu nuklearra da. Eredu horrek komunitateko eragileen arteko lankidetzeta-sareen bitartez eragileen integratzaile-prozesuak eta oinarrizko beharren azaleratzea errazten dituela aldarrikatzen du. Beraz, berrikuntza lehenik soziala eta instituzionala denez, gobernantza-eredu egoki bat garatzea garrantzitsua da. Lehen aipatu bezala, eragileen arteko gertutasuna, toki mailako errealitatearen kontsiderazioa eta, beraz, gobernantzaren lurralde-dimentsioa azpimarratzekoak dira. Hemendik

dator, sozialki berritzailea den lurraldearen kontzepturantz jotzeko garaian, kalitatezkoa eta barnerakoa eta integratzailea den tokiko gobernantza-eredu aproposa garatzeko beharra (Estensoro eta Zurbano, 2010).

Gertlerrekin bat eginez (2002), tokiko gobernantza asoziatiboek tokiko ikasketa-prozesuen bidezko ezagutzaren hedapena aktibatzen dute. Tokiko garapenerako politika publikoen arrakasta errezagoa da kalitatezko tokiko gobernantza asoziatiboa laguntzen duten eta eragileen arteko sarea garatu duten komunitateetan, hainbat esperientziak baieztatzen dutenez. Azken finean, ezagutzaren zabalpena, are gehiago ezagutza tazitoaren kasuan, gertutasunaren eskutik gertatzen da, erakunde-sistema egoki batekin lagundurik datorrena. Kasu honetan eta tokiko ekonomiaren testuinguruan, toki mailan sustrai sakonak dituzten enpresen paper garrantzitsua azpimarragarria da. Izan ere, lurraldeari loturiko ezagutza horren transmisore-rola jokatzeko dute, batez ere, ekoizpen-sistemaren eta gizartearen eremuan garatzen duten harreman-kapitala tartean dela.

Bestetik, gobernantzaren berrikuntzarako prozesuak, ezezagunak eta zalantzazkoak diren arren, kasu bakoitzean ageri diren aukera eta erakunde baliabideak mobilizatzeko ahalmenaren arabera dira (Gonzalez eta Healey, 2005). Administrazio publikoak funtzio erabakigarria du ondoko zereginetan: tokiko gobernantzaren kudeaketan, gobernantzaren ezaugarri barneratzaile, parte-hartzaile eta etengabeko aldaketa sozioekonomikoekiko moldaketan eta ikasketa-prozesuen dinamizazio- eta akuilu-lanean. Betiere, tokiko aktore sozialen mugikortasuna eta aktore zibilen parte-hartze prozesuak giltzarriak dira aipatutako prozesuen arrakastan.

Beraz, gaur egun, ohiko estatu mailako interbentzio publikoaren eredu hierarkikoaren orde, malguagoa, multilateral eta lokalizatua den gobernantza-eredua indarra hartzen ari da. Berrikuntza sozialak gobernantzan bertan eta berrikuntza-prozesuetako lankidetzaren sozialaren ereduaren bertan ezartzen du berrikuntzaren papera. Parte-hartze eta lankidetzaren prozesuak tokiko garapenaren oinarrian ezartzen dira berriz ere. Gobernantza beraren berrikuntza ageri da, beraz, berrikuntzarako eta tokiko garapenerako atal nagusi bezala. Gobernantzaren berrikuntzak eragilearen arteko elkarrekintzan berrikuntzaren logika barneratzea eskatzen du eta, maila orokorrago batean, interbentzio publiko-pribatuen ekintza kolektiboaren oinarritzat hartzen dugu elkarrekintzaren berrikuntzaren logika.

5.1. Ikasten duten lurraldeetatik haratago

Ikasten duten lurraldeen ereduak lurraldetasunean eta baldintza instituzional eta sozialetan oinarritzen dira eta, hein berean, ezagutzaren papera azpimarratzen du (learning region). Aldi berean, ekonomia-sektore eta jarduera ekonomikoaren oinarri nagusi diren enpresen testuingurura gerturatzeko baliagarria zaigu ikuspuntu hau. Hainbat autorek lantzen duten kontzeptu hau gizarteak berak aurrera eramane beharreko etengabeko ikasketari buruz ari da (Lundvall eta Johnson, 1994; Lagendijk, eta Cornford, 2000).

Ikasten duten eskualdeez —*learning region*— eta honekin lotutako kontzeptuez azken bi hamarkadetan jasoriko literatura ugaria izan da eta ekonomian duten garrantzia indartu egin da (Hudson, R. 1999). Horien artean, hainbat izan dira

learning edo ikasketa-prozesuei buruz garaturiko ikuspuntuak; *learning-by-doing* (Arrow, 1962), *learning-by-using* (Rosenberg, 1984), *learning-by-interacting* (Lundvall, 1992; 1995), edota *learning-by-searching* (Boulding 1985, Johnson 1992) kontzeptuean garatuak dira horietako adibide batzuk. Hain zuzen, Lundvallek garaturiko *learning-by-interacting* ikuspuntuak, aldaketa teknologiko azkar eta zalantzazko testuinguruetan enpresek lehiakortasunari eusteko duten ahalmenari egiten dio erreferentzia eta gainerako enpresa eta erakundeekin elkarrekintzan egotea ezinbestekotzat jotzen da. Arrakasta ekonomikoa ikasketa-ahalmenarekin loturik ageri da⁴. Zentzu horretan, ezinbestekoa da berriro ere, ezagutza moten arteko ezberdintasuna identifikatzea eta, horrela, ezagutza tazi-toak, esaterako, lotura garbia erakusten du zentzu kolektibo eta tokiko zehaztasunarekin. Azken finean, elkarrekintza pertsonal eta saregintza sozialaren gainean eraikitako ezagutzaz ari gara. *Know-how* delakoaren kontzeptuak testuinguru sozial eta lurraldearen testuinguruarekin bat egiten du. Izan ere, ikasketa-prozesuak informazio-trukea baino gehiago dira, partekatzen den hizkuntza eta kultura moduko balio sozialak batzen baitira bertan.

Learning-by-interacting ikuspuntu ekonomizistatik berriz Morganen (1995) ikasten duten eskualdeak —*learning region*— kontzeptura salto egiteak eskualdearen arrakasta ekonomikoa lurraldean ageri diren abantailetan ezartzea dakar. Hain zuzen, lurraldean ageri diren baliabide tazitu nahiz kognitibo eta ezagutzak berak harreman zuzena dute arrakasta horrekin eta ikasketa-prozesu kolektiboetan gertutasun espazialak garrantzi berezia jasotzen du. Morganek berrikuntzaren eduki interaktiboa azpimarratzen du alde batetik. Horrela, ikasketa interaktiboko prozesua dela dio, instituzio multzo handi batek parte hartzen baitu bertan. Bestetik, erakunde hauen ohitura eta gizartearen konbentzioaren garrantzia azaltzen du berrikuntza bultzatzeko giltzarritzat. Zehazki, ohitura eta konbentzio horien batuketa gizarte-kapitalizat ulertzen du autoreak (Morgan, 1995).

Morganek hiru maila ezberdintzen ditu; alde batetik, nazio maila dago eta bertan berrikuntza-sistema nazionalak dira elementu azpimarragarrienak. Bestetik, enpresen arteko maila azpimarratzen du, honek suposatzen duen erosle-hornitzaile harreman ororekin eta barne hartzen dituen beste hainbat erakunderekin batera (hornitzaileen erakundeak kasu). Azkenik, enpresa beraren maila azpimarratzen du, non komunikazio horizontala erabiliz elementu ukiezinetan abantailak ematen diren. Mailaketa honetan estatuak joko-zaintzaile eta bideratzaile-papera betetzen du, lehen ere aipaturiko dimentsio multieskalarraren «orkestratzaile» bihurtuz. Mailen arteko esparruan, enpresaren orde, lurraldea bera ageri da ezagutzan oinarrituriko lehiakortasun-egoeraren aktore giltzarri modura (Hudson, 1999).

Ezagutza- eta ikasketa-prozesuak horren garrantzitsuak bilakatzen diren garai honetan, kapitalismoaren eta globalizazioaren hedapenak inoizko desberdintasun sozial, kohesio eza eta justizia sozialerako arazoak uzten dizkigu. Hein berean, logika kapitalista horretan, «irabazle» kontsideratzen diren eskualdeak dauden eran «galtzaile» direnak ere azaltzen dira. Horrek, ekonomia-sistema honetan ezagutzaren ekoizpen eta zabalpenak eragin dezakeen garapen maila disperekoaren errealitatea ulertzeraz garmatza.

4. «Jakintza baliabide estrategiko garrantzitsuena da, ikasketa-prozesu garrantzitsuena den eran» (Lundvall, Morgan, 1997ko artikuluko aipamena).

Hori dela-eta, lan honen funtsa ikasten duten eskualde eta lurraldeen kontzeptu haratago, sozialki berritzaileak diren lurraldeen ideian zein gobernantzaren kontzeptu integralago batean ezartzen dugu interesgunea. Aipaturiko desoreka eta jasangarritasun ezak eragiten du gure arreta eragile kolektibo moduan jarduteko baldintza instituzionalak garatzean ezartzea. Baldintza horiek erakunde-ereduaren berrikuntza-prozesuen bitartez lortuko dira. Horrela, beharren azalpen-bideetan berrikuntza emateaz gain, hauei erantzuteko lankidetzaren eredu, komunikazio eta prozesu errazleak ahalbidetuko dira. Aldi berean, prozesu horiek eragin eta ikasketaren nahiz berrikuntza-prozesu integratzaileak eragiteko politikak duen garrantzia aipatu behar da.

5.2. Berrikuntza-politiken funtzioa

Lorenzenek (2001) ekonomia-politikak definitzeko garaian enpresen arteko eta lurraldetik kanpoko ezagutza-iturriekiko loturaren arteko orekak duen garrantzia azpimarratzen du. Ezagutza-iturrien inguruan, bakoitzaren mailan garatu beharreko ezaugarriak ditu aztergai. Alde batetik, enpresan garaturiko ikasketa-ahalmenak heziketarekin duen harremana aztertzen du. Arlo horretan, berrikuntza-prozesuak sustatzeko eskulan gaituak duen balioa argia da. Bestetik, tokiko enpresen artean ikasketa interaktibo eta organikoa sustatzea ere beste gakoetako bat dugu, oro har, tokiko eragileen artean loturak bideratzea eskatzen du honek. Azkenik, lurraldetik kanpoko loturei dagokienez, nabarmen geratzen da ikasketa maila garatuek ezinbesteko dutela barneko ezagutza-iturriez gain kanpoko iturriekiko lotura izatea. Beraz, ikasketa-prozesuak sustatzea helburu duten politikek inoiz baino elementu gehiago aintzat hartu behar dituzte. Erakunde publiko nahiz pribatuaren arteko lankidetzatik sustaturiko politikak dira helburu. Politiken diseinurako arduradunen, enpresen eta hainbat eragileren arteko elkarrekintza nahitaezkoa izango da. Horretarako, nazio mailatik haratago, eskualde edo toki maila askoz ere eskala eraginkorragoa da politikak indarrean jartzeko ere. Berrikuntza-politikak hain zuzen, harreman-kapital hori eragiteko lan egitea giltzarri suertatzen da autore honen ustez, tokiko eragileen sare-mugak zabaldu eta dibertsifikatzea erraztuz. Dena den, tokiko baliabide eta ezaugarrietan oinarrituriko garapen endogenoa bultzatzeko nahian, tokian tokiko testuingurua izango da politika-programen oinarria.

Ikasketa-prozesuetan oinarrituriko literaturarekin jarraituz, Benzek eta Fürstek (2002) erabat lotzen dute lurraldearen berrikuntza-ahalmena politika-sare autonomoen existentziarekin. Nonaka eta Reinmölleren (1998) ustez, *policy learning* edo ikasketa-politiken prozesuak martxan jartzea, atzerapen askorik gabe eta kanporesiorik eragin gabe aldaketa sistematikorako baldintzak garatzean datza. Benz eta Fürsten (2002) lanean agertzen denez, lehiakortasun-ahalmen horren gakoa ikasketa-prozesu endogenoak bultzatzeko ahalmenean egongo da. Lurraldearen dimentsioa barneraturik *regional policy learning*aren kontzeptua plazaratzen dute. Lurraldearen garapenean eragiten duten eragileen parte-hartzean oinarrituriko ikasketa kolektiboko prozesuak bultzatzea izango da xedea.

Benzek eta Fürstek (2002) sareek elkarrekintza berritzailea sustatzeko duten balioari egiten diote aipua. Sarean parte hartzen duten eragileak aukera berriak aurkitzeko asmoz ikasteko motibatuak agertzen dira. Informazio berria eskura-

tzeko aukerak handitzen dira eta arazo kolektiboei konponbide kolektiboak aurkitzean transakzio-kostuak gutxitzea lortzen da saretze-prozesuetan (Scheff, 1999). Benzek eta Fürstek ikasketa-prozesuan gauzatzen den ekintza kolektiboaren zergatiari eta prozedurari erantzun nahi diete. Ekintza kolektibo hori eragiten duten egitura- eta lurralde-gobernantzako beharrezko prozesuak aztertzen dituzte. Saretze-prozesuak dira gobernantza-eredu horietan nagusi, baina esan bezala, sareak ez dira «ikasketa-sistemak» bere horretan soilik; sareek ere *status quo*-ari eusteko, presioa jasotzen dute eta botere politikoarekiko autonomia oso mugatua izatea suerta liteke. Horretarako sare hauen helburua, informazio berria sortu, zabaltzea eta beharrei erantzutea izango da. Hori dela-eta, Benz eta Fürstek (2002) lurralde-ikasketa prozesuetan saretze-esperientzia eraginkorrek bultzatzeko irizpide batzuk azpimarratzen dituzte. Lehenik eta behin, sareen egiturari dagokionez, parte hartzen duten eragileen aldaera ezberdinek eta heterogeneotasunak informazio-eta aukera-ugaritasuna ahalbidetuko dute. Horrek aldi berean, gatazka-arriskua handituko du. Modu berean, kanpo-harremank ere balio berezia izango dute, batez ere lurraldean ez dagoen ezagutza bereganatzea lortuko baita. Bestetik, parte-hartzaile diren eragileei dagokionez, autonomia mailak ere ikasketa-ahalmenean eragina du. Horrela, banaka eta gainerakoekin ikastea izango da helburu eta, horretan, beren arteko lehia eta lankidetzaren arteko oreka bilatu beharko da. Azkenik, eragileen portaeran ere, testuinguruko kultura politikoak duen eragina nabaria da. Askotariko jarrerak ikuspuntu- eta ekintza-dibertsitatea erakartzeko aukera eskurazten dute.

Horrela, politikagintza berritzaileak bertako eragileen arteko truke eta lankidetzaharremanketan nahiz interdependentzietan izango du oinarria. Hain zuzen, eskualdeek egitura instituzional ahulak izatean, sareetan lankidetzak malgua bultzatu nahi duten eragileen lana erakartzea lortzen dute eskualde horiek. Dena den, sare hauetan definituriko politikak nahitaez administrazioek eta bestelako instituzioek onartu beharko dituzte; berriro ere, ikasten duten lurraldeen gobernantza-eredua definitzeko garaian erakunde-sistemak duen garrantzia berresten digu honek. Esan bezala, sare-egitura egokia bultzatzeko gai den sistema instituzionalak ezartzea helburu duen gobernantza izango litzateke prozesu kolektiboak bideratzeko bidea. Garapen-politikek ikasketa-prozesu hauek bultzatzea bilatu beharko dute beraz. Politika hauen oinarrietan, tokiko erakunde-sistema arretaz definitu behar da. Gainera, tokiko garapenarekin loturiko proiektuetan oinarritzen den lankidetzaren kudeaketan oinarritu beharko da politika hori —lankidetzakultura eta giza kapitala sustatzea erraztuko lukeena—.

Gobernu mailako erabakiak hartzeko prozesuek berrikuntza-ereduekiko duten hurbiltasuna kontuan hartu beharreko gaia dugu. Politikek komunitate eta biztanleek ageri dituzten beharrei erantzuteko orduan daukaten moldatzeko gaitasuna ezinbesteko baldintza da. Honek unean uneko arazoei aurre egin eta agenda politiko estandarizatu eta burokratikoetatik urruntzea eskatzen du. Gainera ezin da ahaztu, gobernutik bultzaturiko berrikuntza-politiken helburua, berrikuntza-sistema osatzen duten eragileengan, ekoizpen-sistema osatzen duten enpresa-sarean eta gizartean bertan xurgatze- edo absortzio-ahalmena handitzea dela.

Berrikuntzaren kontzeptuarekin gertatzen den moduan, berrikuntza-politikan ere esperientzia urria da gobernuen kasuan. Lehen ere aipatu dugun ildotik,

berrikuntza eduki sozial handiko arloa izanik, bere garapena testuinguruak eta abaguneak baldintzatuta egongo da. Prozesuak berak garrantzi berezia jasotzen du eta *policy learning*aren pisua, beraz, inon baino handiago azaltzen da kasu hauetan (Nauwelaers eta Wintjes, 2008). Nolanahi ere, ikasketa-prozesuak ez dira politiken bikoizteaz ari; ikasketa-ariketa horrek hausnarketa-prozesu bat eragitea du helburu, eraginkortasun eta kasuko egoerara moldatuko den eredu eraginkorra lortuz. Horretan, hainbat dira Europar Batasunetik politikan ikasketa-prozesu hauek bultzatzeko ekimenak⁵.

Remoeren (2008) esanetan berrikuntza-politikaren bigarren belaunaldiak berrikuntzaren eredu sistemiko interaktibora garamatza, lehen belaunaldiko eredu lineala atzean utzita. Eragileen arteko harremanek garrantzi eta balio berezia jasotzen dute hemen, berrikuntza prozedura tradizionaletik urrunduz. Berrikuntza-politikek, lehen aipaturiko bidetik, gobernu eta politikaren eskumenetan integraturik egon behar dute, hirugarren berrikuntza-politikaren belaunaldirantz urratsak emate aldera (Remoe, 2008). Aipaturiko eragileen arteko lankidetzaz izango da berrikuntza bideratu eta politiken diseinurako eta ondoren aipatzen dugun xurgatze-ahalmena handitzeko bidea; politikagileek (*policy maker*) eredu interaktiboan barneratzeko prozesuak bideratu beharko dituzte. Ezagutza-trukean oinarritzen diren saretze-prozesuak protagonista bilakatzen dira beraz.

Remoek (2008) hein berean, berrikuntza-sisteman zuzenean eragiten duten erakunde-sistemaren eta gobernantzaren akatsak definitzen ditu. Gaur egungo gizartearen beharrek bestelako gobernantza- eta gobernu-izaera baten diseinuan lan egiteko garrantzia plazaratzen digute eta horretarako dinamika berritzaile eta parte-hartzaileak bultzatzea garrantzitsua da. Gobernuen eskutik gobernantza berritzaile horren sustapenerako bideak erraztearen beharra azaltzen du Remoek (2008). Epe laburrean zentratzeko ohitura eta inertzia estrukturalak politika-agen-den bateratzea eta inplementazioa oztopatzen du sarritan. Horrela, gobernantza eta politika estrategikoa uztartzeko orduan esparru estrategikoen diseinua, horizontaltasuna eta eragileekiko komunikazio-fluxua erraztuko dituzten bideak lantzea giltzarria litzateke. Agenda politikoak indarrean jartzea eta ekintzara igarotzea, berriz, askotan gobernuaren egitura konplexuekin zailtzen dira. Horregatik burokraziaren gutxitzea eta politikaren deszentralizazioa tresna eragile bilakatzen dira, eta bi joera horiek gainerako lurralde mailen eta eragileen rola indartzea dakarte. Azken finean, malgutasuna berezko ezaugarri izatean legoke gakoa.

Integrazio- eta xurgatze-ahalmen handiagoak aldi berean azkartasuna eragiten du bere horretan. Horrenbestez, politiken diseinurako prozesua bera berrikuntza-prozesu bilakatzen da. Hain zuzen, harreman-kapitalaren sustatzea gizartearen beharrei erantzuteko bideratuko da eta prozesuan bertan eragiten den ikasketa eta ezagutzaren elkartrukean oinarritzen da. Ikasketa hori politiken diseinurako prozesuan bertan ematen da.

5. Prozesu hauen adibide moduan, OCDEko herrialdeetan berrikuntzaren gobernantza bultzatzeko helburua izan duen MONIT proiektua dugu (OCDE, 2005). Bertan berrikuntza-politikaren hirugarren belaunaldira jotzeko, gobernuaren aldetik garatu beharreko baldintzak definitzen dira. Azken finean, muga instituzionalak hautsi eta politika-ikasketarako prozesu eraginkorrak nahiz politika-koheren-tziarako ahalmen kolektiboak eraikitzeko helburuari jarraitzea ezinbestekoa litzateke.

6. Ondorioak

Berrikuntza sozialak lurralde-garapenean eragiteko logika- eta eredu-aldaketa proposatzen du. Lehenik eta behin, komunitatearen beraren balioztatzea eta botere-eskualdatzea aldarrikatzen da. Tokiko eragileak ezagutza- eta berrikuntza-prozesuak eragiteko orduan giltzarri dira. Banakako ahalmen hori, eragile publiko eta pribatuaren lankidetzaren bitartez biderkatzen da eta harreman horiek eragiteak duen balioa lehenesten da. Eragileen arteko ezagutza trukatzeko aukera —are gehiago ezagutza tazitua bada—, konfiantza bezalako balioek eta bera bultzatzeko kapital instituzionalak ahalbidetzen dute.

Harreman-kapital horren hobespena erraztuko duen tokiko dimentsioa eta tokiko gobernantza-eredu berritzaile baten indartzea giltzarri bilakatzen dira. Saretze-prozesuak gobernantza-eredu horren oinarri dira. Azken finean, tokiko ekonomiaren eta giza kapitalaren harreman-abantailak sare hauetan eragiten dira. Sareen barnean sorturiko harreman-kapital horrek tokiko autorregulazio-ahalmena garatzen du. Aldi berean, saretze-prozesuak ikerketa-lan honetan gaketat dugun berrikuntza sozialaren ideiarekin oinarrian aurkitzen dira. Hain zuzen, lurraldearen ikuspuntutik, berrikuntza sozialaren eduki soziala berrikuntza eragiteko prozesuetan bertan hezurramitzen dela aldarrikatzen dute berrikuntza soziala prozesu moduan ikusten duten egileek (Moulaert eta Nussbaumer, 2005; Davies, 2009; Mulgan, 2006).

Harreman-kapitala funtsezkoa da gobernantza-eredu berritzaileak eragiteko eta zubi hori sor dadin garapen instituzionalak urratsak eman behar ditu. Zehazki, tokiko garapena helburu duten bitarteko instituzioen arkitektura indartsua giltzarria da zubigintza honetan. Tarteko instituzio hauek tokiko eragile guztien interes-gatazkak kudeatzeaz arduratuko lirateke aldi berean. Kapital instituzional hau gainerako kapitalen garapenaz arduratuko da. Kapital mota honetan lankidetzeta eta komunikazioa nahiz saretze-prozesuak errazteko gobernantza-eredu egokia eraikitzeak berrikuntza eragiten laguntzen du.

Bestetik, berrikuntza-politikaren erronka garrantzitsuena ere hau litzateke: eragile ugarien arteko ikasketa-prozesu kolektiboak eragin eta, hemendik, sozialki berritzaileak diren lurraldeetarantz jotzeko baldintzak erraztea. Administrazio publikoak, horrela, paper proaktiboak du dinamika honetan. Inklusio eta parte-hartze jarrerak erraztea eta tokiko gobernantza-ereduaren kudeaketa bera horren adibide dira, eta kasuan kasuko egoerara moldatzea ezinbesteko baldintza da.

Tokiko eragileen arteko parte-hartze prozesuak sozialki berritzaileak diren lurraldeen oinarri garrantzitsuenetakoa dira. Areago, sozialki berritzailea den kulturaren zabaltzean, lurraldeak berak du eragile-papera. Azken finean, ezinezkoa zaigu pertsona eta erakundeak sortu eta garatu diren lurraldeak alboratzea, lurraldea bera baita askotariko eragileek beren jarduera garatzen duten harreman-sarea.

Bibliografia

- Amin, A. eta Thrift, N. J. (1995): "Institutional issues for the European regions: from markets and plans to socioeconomy and power of association", *Economy and Society*, **24** (1), 46-61.
- Arrow, K. (1962): "The Economic Implications of Learning by Doing", *Review of Economic Studies*, **29**, 155-73
- Benz, A. eta Fürst, D. (2002): "Policy learning in regional networks", *European Urban and Regional Studies*, (9) **21**, 21-35
- Boulding, K. (1985): *The world as a total system*, Sage, Londres.
- Camagni, R. (arg.) (1991): *Innovation networks, Spatial perspectives*, GREMI-Belhaven Press, Londres.
- Coleman, J. S. (1988): "Social Capital in the Creation of Human Capital", *American Journal of Sociology*, **94**, 95-120.
- Cooke Ph. eta Morgan, K. (1998): *The associational economy. Firms, regions and innovation*, Oxford University Press, Oxford.
- CRISES (Centre de recherche sur les innovations sociales) (2003): *Qu'est-ce que l'innovation sociale?*, lan-koaderno, Québec-eko Unibertsitatea, Québec.
- Davies, J.S. (2005): "Local governance and the dialectics of hierarchy, market and network", *Policy Studies*, **26**, ¾, 311-335
- Echeverría, J. (2008): "El manual de Oslo y la innovación social", *ARBOR Ciencia, Pensamiento y Cultura*, CLXXXIV, 609-618
- Estensoro, M. eta Zurbano, M. (2010): "Innovación social en la gobernanza territorial. Los casos de Innobasque y las redes comarcales de la Comunidad Autónoma de Euskadi", *Ekonomiaz*, **74**, 132-160.
- Florida, R. (1995): "The industrial transformation of the Great Lakes region", in Cooke (arg.) *The rise of the Rusbelt*, University of London Press, Londres, 162-176.
- Gershuny, J. (1983): *Social innovation and the division of labour*, Oxford University Press, Oxford.
- Gertler, M. (2002): "Technology, culture and social learning: regional and national institutions governance", in M. Gertler eta D. Wolfe, (arg.), *Innovation and Social Learning*, Palgrave MacMillan, New York.
- Gonzalez, S. eta Healey, P. (2005): "A sociological institutionalist approach to the study of innovation in governance capacity", *Urban Studies*, **42** (11), 2055-2069.
- Granovetter, M. (1973): "The strength of weak ties", in *American Journal of Sociology*, **78**, 1360-1380
- Gueron, G. (1984): "The work of the international foundation for social innovation" in C.G. Hedén eta A. King, *International Federation of Institutes for Advanced Study (AFIAS), Social innovations for development*, Papers presented at the UN conference on Science and Technology for development, Pergamon Press, Oxford.
- Hudson, R. (1999): "The learning economy, the learning firm and the learning region: a sympathetic critique of the limits to learning", *European Urban and Regional Studies*, **6**, 59-72.
- Innobasque (2010): *Hacia una Sociedad Vasca 2030 basada en Valores Innovadores*, <<http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=183>>.
- Johnson, B. (1992): "Institutional learning", in B.-A. Lundvall (arg.), *National Systems of Innovation: Towards a Theory of Innovation and Interactive Learning*, Pinter, Londres, 23-44.
- Keating, M. (2005): "Gobernar las ciudades-región: política, economía y desarrollo", *Ekonomiaz*, **58**, 128-145.

- King, A. (1984): "The need for social and institutional innovation", in C.G. Hedén eta A. King, 1984: *International Federation of Institutes for Advanced Study (AFIAS), Social innovations for development*. Papers presented at the UN conference on Science and Technology for development, Pergamon Press, Oxford.
- Klinj, E.H. (2008): "Governance and governance networks in Europe. An assessment of ten years of research on the theme", *Public Management Review*, **10** (4), 505-525
- Lagendijk, A. eta Cornford, J. (2000): "Regional institutions and knowledge- tracking new forms of regional development policy", *Geoforum*, **31**, 209-218.
- Lorenzen, M. (2001): "Localized Learning and Policy: Academic Advice on Enhancing Regional Competitiveness through Learning", *European Planning Studies*, (9) **2**, 163-185.
- Lundvall, B. A. (arg.) (1992): *National Systems of Innovation: Towards a Theory of Innovation and Interactive Learning*, Pinter, Londres.
- Lundvall, B. A. (1995): "The Learning Economy-Challenges to Economic Theory and Policy", EAERE Konferentziako artikulua, Kopenhage
- Lundvall, B. A. eta Johnson, B. (1994): "The Learning Economy", *Journal of Industry Studies*, (1) **2**, 23-42.
- Maskell, P. (1998): "Low-tech competitive advantage and the role of proximity", *European Urban and Regional Studies*, (5) **2**, 99-118.
- Morgan, K. (1997): "The learning region: institutions, innovation and regional renewal", *Regional Studies*, (31) **5**, 491-503.
- Moulaert, F.; Martinelli, F.; Swyngedouw, E. eta Gonzalez, S. (2005): "Towards alternative model(s) of local innovation", *Urban Studies*, **42**, 1969-90.
- Moulaert, F. eta Nussbaumer, J. (2005): "The social region: beyond the territorial dynamics of the learning region", *European Urban and Regional Studies*, **12**, 45-64.
- Moulaert, F. eta Nussbaumer, J. (2008): *La logique sociale du développement territorial*, Presses de l'Université du Québec, Québec.
- Nauwelaers, C. eta Wintjes, R. (2008): "Innovation policy, innovation in policy: policy learning within and across systems and cluster", in C. Nauwelaers eta R. Wintjes, *Innovation Policy in Europe*, Edward Elgar, Cheltenham, 225-268.
- Nonaka, I. eta Reinmüller, P. (1998): *The legacy of learning. Toward endogenous knowledge creation for Asian economic development*, WZB-Jahrbuch, Sigma, Berlin.
- Nooteboom, S. eta Marks, P. (2010): "Adaptive Networks as Second Order Governance Systems", *Systems Research and Behavioral Science*, **27**, 61-69.
- Novy, A. eta Leubolt, B. (2005): "Participatory Budgeting in Porto Alegre: Social Innovation and the Dialectical Relationship", *Urban Studies*, (42) **11**, 2023-2036.
- OCDE (1997): *The measurement of scientific and technological activities proposed guidelines for collecting and interpreting technological innovation data. Oslo Manual*, <<http://www.oecd.org/dataoecd/35/61/2367580.pdf>>.
- , (2001): *Cities and Regions in the New Learning Economy*, OCDE publications, Paris.
- , (arg.) (2005): *Governance of Innovation: Synthesis Report*, 1, OCDE Press, Paris.
- Pierre, J. eta Stoker, G. (2002): "Towards multi-level governance", in P. Dunleavy; A. Gamble; R. Heffernan; I. Holliday eta G. Ren Peele, *Developments in British Politics*, **6**, Palgrave, Basingstoke.
- Potters, T. (1998): "Social innovation: Strategy against exclusion?", Paper for the ISA-Conference.
- Putman, R. (2000): *Bowling alone. The collapse and revival of American community*, Simmon and Schuster, New York.

- Powell, W. W. (1990): "Neither Market Nor Hierarchy: network forms of organization", *Research in Organizational Behavior*, **12**, 295-336.
- Remoe, S.O. (2008): "Innovation governance in dynamic economies: lessons from the OCDE MONIT project", in C. Nauwelaers eta R. Wintjes (2008) *Innovation Policy in Europe*, Edward Elgar, Cheltenham, 139-170.
- Rhodes, R.A.W. (2000): *Foreword, The New Politics of British Local Governance*, MacMillan, Basingstoke, xi-xv.
- Rosenberg, N. (1982): *Inside the Black Box: Technology and Economics*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Sabel, C. (1996): *Irlande, partenariats locaux et innovation social*, Organisation de Coopération et de Développements Économiques (OCDE), Paris.
- Scheff, J. (1999): *Lernende regionen. Regionale netzwerke als Antwort auf globale Herausforderungen*, Linde, Viena.
- Stoker, G. (1998): "Governance as theory: five propositions", *International Social Sciences Journal*, **50 (155)**, 17-28.
- Taylor, J.B. (1970): "Introducing social innovation", *Journal of Applied Behavioral Science*, **(6)1**, 69-77.
- Woolcock, M. eta Narayan, D. (2000): "Social Capital: Implications for Development Theory, Research, and Policy", *World Bank Research Observer*, **(15) 2**, 225-251.
- Zurbano, M. (2005): "Las regiones como sujetos de la economía global", *Ekonomiaz*, **58**, 196-229.

